

## **AHIZPA TTIPIA**

Enma Arestegui, 12 urte

*Hazparne*

Maite dut ahizpak  
ene belarri xokoan  
hitz goxo eta segetuak  
xuxurlatzea;  
baina, egia da,  
batzuetan  
hobeki nintzateke...  
hura gabe.

Maite dut ahizpak  
ene istoriotxoak  
entzutea,  
begiak borobil,  
belarriak xut;  
baina nahiago nuke  
nire bihurrikeriak  
kontatzen ez balizkie...  
burrasoei.

Maite dut ahizpak  
niri jokoak egitea,  
irria zabal,  
bihotza bero;  
baina, artetan,  
zirtzika nezake  
nire bi...  
eskuen artean.

Maite dut ahizpa  
ondoan izaitea  
behar dudalarik;  
baina nahi nuke,  
hala ere,  
bakean uztea  
naizelarik...  
lagunekin.

Handi ala ttipi,  
maite izanen dut beti  
munstrorik maitagarriena  
edo  
lagunik aurkakoena  
**AHIZPA TTIPIA!**